


# Erredox eta pH

## Ariketak





Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/> helbidean.

- [1] Manganesoaren Latimer-en diagrama da dago behean ingurune azidoan. Permanganatetik manganeso(IV) oxidora doan eta permanganatetik  $Mn^{2+}$ -ra doan erredukzioaren potentzial estandarrak kalkulatu. Zein da  $Mn^{3+}/Mn^{2+}$  bikotearen erredukzioaren potentzial estandarra ingurune basikoan? Manganesoa metal noblea al da? Azaldu laburki





- [2] Ondokoak dira kloroaren Latimer-en diagramak ingurune azidoan eta basikoan.




- Erredukziozko potentzialak kalkulatu hipokloritotik diklorora ingurune bietan.
- $Cl_2/Cl^-$  bikoteari dagokion erredukzioaren potentzialak balio bera du ingurune bietan. Azaldu zergatia.
- $Cl_2$  espezia ez da egonkorra ingurune bietan. Azaldu zein ingurunetan da egonkorra eta zergatik.
- Espezie batzuk dismutatzen dira. Zeintzuk?

- [3] Ondokoak dira iodoaren Latimer-en diagramak ingurune basikoan eta azidoan.




- Erredukzioaren potentzialak kalkulatu IVII-tik I0-ra ingurune bietan.
- $I_2/I^-$  bikotearen erredukzioaren potentziala bera da ingurune bietan. Azaldu zergatia.
- Zer ingurunetan da egonkorragoa I2 espezia. Azaldu zergatia.

- [4] Nitrogenoaren Frost-en diagrama eraiki ingurune basikoan, ondoko Latimer-en diagrama erabiliz



- [5] Nitrogenoaren Frost-en diagrama erabiliz, azaldu  $\text{N}_2\text{O}_4$  espeziearen egonkortasuna



- [6] Nitrogenoaren Frost-en diagrama erabiliz, azaldu NO eta  $\text{N}_2\text{O}_4$  espezieak bateragarriak diren ala ez.